

Deserriaren presoak

Aurten 25 urte bete dira Frantziak Iparraldean bizi ziren lehen errefuxiatuak deportatu zituela. Bost urtean 50 bat lagun deportatu zituzten, eta oraindik dozena inguru deportatu daude, gatazka konpontzeko zain, etxera itzultzeko.

Eider Goenaga

Presoak gara, preso egon gabe; existitzen ez den kartzela batean gaude. Deportatu gisa, ikusezin gara konfinatuak gauden estatuetan; ikusezinak, oro har, persona ororentzat, epaitegientzat... Ez, ordea, gure sendeentzat ez eta geroentzat ere». Alfonso Etxegarairen hitzak dira. 1985eko uztailean deportatu zuten Ekuadorrera, eta han egindako urtebete eskasean, Espainiako polizia bahu eta torturatu egin zuten hainbat egunez. 1986ko maiatzeko tokiz aldatu zuten, eta Sao Tome uhartera eramane zuten (Sao Tome eta Principe), Afrikara. Ordutik han bizi da, eta bera da uharteko deportatu bakarra. Urruntasunari ez ezik, erabateko bakaradeari ere egin dio aurre 25 urteotan, eta argi du deportazioa zer den beretzat: kartzela.

Baina Alfonso Etxegarairen historia, deportatuen artean lagarrietakoa bat izanik ere, ez da bakarra. 1980eko hamarkadan dozenaka iheslari atxilotu zituen Frantziako Gobernuak eta, Espainiako Gobernuaren eskariz zein lankidetzaz, urruneko lurretara eramane zituzten, batik batik Afrika eta Latinoamerikara. Berrogeita hamar bat izan ziren 1984an hasita deportatutako euskal herritarrek, eta azken deportazioak 1989an izan ziren, Aljerko negoziazioak hautsi ostean.

Baina deportazioak beren garaiako egoeran kokatu behar dira. 1980ko hamarkada hasieran, Ipar Euskal Herrian errefuxiatu ugari bizi zen, eta Espainiako Gobernuak «ETAren babesleku» deitzen zuen hori amaitzea nahi zuen. Urteak zeramatzan Frantziako Gobernuari eskatzen euskal errefuxiatuen estradizioa eta kanporatzea.

Joxemi Arrugaeta izan zen,

1984ko urtarrilean, Frantziak atxilotu eta Latinoamerikara eramane zituen lehen sei deportatutako bat, eta haren kasua Frantziak ordu arte izandako jokabidearen adierazgarri da. Izan ere, 1982an Espainiako Gobernuak haren estradizioa eskatu arren, Frantziak ukatu egin zuen. Baina Ipar Euskal Herrian bizitzeko debekua ezarri zion, eta Yeu uhartera (Bretainia parean) konfinatu zuen. «Sei hilabete egin nituen han. *Asignazioa* deitzen zioten, baina deportazioa zen hura ere», dio Arrugaetak.

«1984an, ordea, jarrera aldaketa gertatu zen. Ordu arte, Gaston Defferre Barne ministro zela, Frantziak beti ukatzen zituen estradizio eskaerak, eta François Mitterrandek jarrera horri eutsi zion. Baina, 1984an, GALen ekintzak tarteko zirela, eta Felipe Gonzalezen gobernuak egindako presioa zela-eta, Mitterrandek iritzia aldatu zuen. Garai nahasiak zi-

ren, latzak benetan; gu atxilotu baino egun batzuk lehenago, Mikel Goikoetxea *Txopela* hil zuen GALek».

Lehenengoak, Panamara

Arrugaeta atxilotu zuten operazio berean atxilotu zituzten Peio Ansola, Karlos Ibarguren, Txutxo Abrisketa, Joxe Mari Larretxea —1983ko urrian GAL hura bahitzen saiatu zen— eta Jose Antonio Mujika ere. «Gure beldurra zen Madrilera eramane izatea, han gure osotasun fisikoa arriskuan baitzegoen; torturatu egingo gintuzten, eta Pirinioei begira pasatu genuen Pauefik Parisera eramane gintuen hegaldi osoa. Iparrera hartu genuenean, lasaitu ginen». Baina ez erabat, Paristik Guadalupera eramane zituzten eta, han gaua pasatu ostean, Panamara. Deportatuak ziren, baina Panamara iritsi baino ordu erdi lehenago arte ez zuten ezer jakin: hegazkinean esan zie-

ten Frantziatik kanporatu egin zituztela eta Panamako agintarien eskuetan utziko zituztela.

Baina deportazioen erabakia lehenago hartua zen; datu guztien arabera, 1983ko abenduaren 20an. Egun hartan, Espainiako gobernu buru Felipe Gonzalezek eta Frantziako presidente François Mitterrandek bilera egin zuten, Parisen, euskal auziaz hitz egiteko —bi estatuen arteko harremanak asko hobetu ziren 1982an PSOEek gobernu eskuratu zuenez geroztik—. Joxean Lasa eta Joxi Zabala desagertuta zeuden garai hartan, Segundo Marey bahituta zeukaten, eta GALek Ramon Oñederra *Kattu* hil zuen bezperan. Espainiako Estatuak legezko zein legez kanpoko tresna guztiak ari zitzaion presioa egiten Frantziari, eta bilera horren lehen emaitzak hiru asteren buruan iritsi ziren: deportazio moduan. Kasu horretan ere GALek iheslari bat hil eta berehala.

Erdibideko konponbidea

Arrugaetaren arabera, deportazioak «erdibideko konponbidea» izan ziren, Espainiak nahi zituen estradizioen eta Frantziak errefuxiatuak Madrilen esku utzteko

Nazioarteko legeditik at

Deportatua zigor bat betetzen ari da, baina inongo epaitegitatik pasatu gabe, defentsarako eskubiderik gabe.

E.G.

Deportazioak, lege ikuspegitik, ez dauka nondik heldu, eta deportatuak are helduleku gutxiago du egoera horri ikuspegi juridikotik aurre egin nahi badio. Izan ere, deportatua izatea norbere herritik milaka kilometrora «paperik gabe» bizitzea da. Joseba Agudok hainbat urtez artatu ditu euskal deportatuak, eta erantzuna berehalakoa da, deportazioak nazioarteko legedian duen tokiaz galdetuta. «Nazioarteko legedian ez dago halako figura juridikorik. Antzekoak, egongo dira, baina bi estaturen artean erabakitzea per-

tsiona bat hirugarren estatu batera bidaltzea...». Iritzi bera agertu zuen Miguel Castells abokatuak, 1995ean. Elkarrengatzen egindako txosten batean: «Deportazioa ez dago aurreikusita inongo ordenamendu juridikotan. Akordio sekretuek arautzen dute, segurueenez ahozko akordioak dira, Espainiako Gobernuak presidentearen eta dagokion errepublika afrikar edo latinoamerikararen artekoak. Deportatua *izatezko preso* da, eta herrialde hartzaileak nahi duena egin dezake harekin. [...] Oinarriko eskubideen ageriko urraketa da eta deportatuak ezin du ezer egin».



Gose greba Baionako katedralean. GALek egindako hilketen eta errefuxiatuen kontrako jazarpenaren —tartean, lehen deportazioak— aurka protesta egiteko eta errefuxiatuek Euskal Herrian bizitzeko duten eskubidea aldarrikatzeko, hiru astez gose greba egin zuten hainbat errefuxiatuak Baionako katedralean, 1984ko urtarrila eta otsaila artean. CRSek bota zituzten bertatik, eta Arbonan jarraitu zuten. DANIEL VELEZ

oraindik zeukan uzkuratsunaren artean. «Horregatik, kanporaketa masiboeekin eta estradizioekin hasi zirenean, eta Frantzia errefluxiatuen kontrako neurri zuzenagoak aplikatzen hasi zenean, Espainiak interesa galdut zuten, eta deportazioak, salbuespenak salbuespen, bertan behera geldituz ziren ia».

Deportazioen lehen oldea 1984ko urtarriletik irailera bitartean gertatu zen; bederatzihilabete horietan, 26 lagun deportatu zituzten Panamara —eta handik Kubara—, Venezuelara, Dominikar Errepublikara eta Togora. Parentesi bat izan zen gero, eta 1985eko uztailetik azarora 11 lagun Cabo Verdera eta Ekuadorrerera eramant zituzten. 1986an, sei lagun Cabo Verdera eramant zituzten, eta bat —Txomin Iturbe— Gabonera; urte hartan bertan, hainbat deportatu lekuz aldatu zituzten. Eta 1987an, Aljeria izan zen urte hartako hamabi deportatuen jomuga. Azken deportazioak 1989an gertatu ziren. Espainiak Gobernuaren eta ETAREN arteko Aljeriako elkarrizketak hautsi zirenean, han zeuden deportatu guztiak eta ETAREN hiru ordezkariak —Eugenio Etxebeste, Inaki Arakama eta Belen Gonzalez Penalba— Dominikar Errepublikara, Cabo Verdera eta Venezuelara eramant zituzten.

Guztira, deportatuak ez ziren 50era iritsi, baina iheslarien kontrako jazarpena hain zen gogorra 1984ko hasierako hilabete horietan —GALEK eta deportazioek

areagotuta—, non errefluxiatuen eskubideen aldeko mobilizazio indartsua izan baitzen Ipar Euskal Herrian. Baionako katedralean, esaterako, hiru astez egin zuten gose greba, eta Arbonan jarraitu zuten, Poliziak handik indarrez bota ostean. Bestalde, deportazioek ez zuten Espainiako Gobernuaren gogoa asebetetzen, eta nazioartean halako operazio batek eskatzen zituen ahalegin diplomatikoak izugarriak ziren, emaitzekin alderatuta. 1984ko irailaren 23ean Mitterrandek hiru presoren estradizioa onartu zuen, eta gero entrega eta kanporaketa masiboak hasi ziren.

Deportazioak noizbehinka baino ez ziren izaten, modu guztiz arbitrarioan. Elena Barcena 1986an deportatu zuten Cabo Verdera; urte horretan deportatutako zazpi lagunetako bat zen, eta horrela hitz egin zuen Pilar Iparragirre kazetariaren *Deportacion. El mal*



«Espainiak estradizioak nahi zituen, eta deportazioak 'erdibideko konponbidea' izan ziren»

«Gu itzultzeko, deserrira ekarri gintuen gatazka politikoak gaitzuta behar du»

JOXEMI ARRUGAETA
Deportatua

menor liburuan: «Nik ez dakit zenbateraino egiten zuten pentsatutako aukeraketa bat; ez dakit zeren arabera erabakitzen zuten *artaldeko* zein zen deportatzeko modukoa eta zein zen kanporatu edo estraditatzekoak».

Herrialde hartzaileak


Arrugaetaren arabera, hasieran nabarmen luzeagoa zen deportatu behar zituztenen zerrenda. «Ni atxilotu nindutenean, errefluxiatuen zerrenda luze-luze bat ikusi nuen, eta, nire ustez, horiek denak deportatu nahi zituzten. Baina, Frantziak atxilotu arren, Espainiako Gobernuari zegokion guri toki bat bilatzea, toki horretako agintariekin negoziatzea, eta nik uste dut ez zitzaiola batere erraza gertatu». Euren kasuan, Panamara eramant aurretik gaua Guadalupen pasarazteko arrazoia horixe bera izan zela dio Arrugaetak. «Gero jakin genuen, hasierako asmoa gu Venezuelara eramatea zela, baina, antza denez, Espainiako Gobernuak ez zuen ondo lotu, eta Venezuelak

ateak itxi zituen. Orduan, Panamari sartu zioten fardela, mesede bat sor ziolako orduko gobernuak Gonzalezek». Joseba Agudo abokatuaren arabera, akordioak ezkurtuak izan arren, argi dago akordioak egin zirela. «Dena den, herrialde hartzaileen rola ez zen beti bera izan. Cabo Verde duintasunez tratatu izan ditu beti han izan diren kideak; Ekuadorrek torturak baimendu zituen... Halere, uste dut esan daitekeela, salbuespenak salbuespen, herrialde hartzaileen beharrak eta egindako xantaia ekonomikoak agindu zuela gobernu haien jarduean».

Kuba ere izan zen deportatu hartzailea. Hain zuzen ere, Fidel Castroren gobernuak hartu zituen, 1984ko maiatzean, Panamara iritsitako lehen sei deportatu haiek. «Panaman egoera txartzten ari zen, eta Espainiako Gobernuak Kuban bilatu zuen irtenbidea. Kubako Gobernuak mesede bat zor zion, eta trukean deportatuak hartzea eskatu zion Gonzalezek. Pentsa zenbateko arazoa ginen, Espainiako, Frantziako edo Nazio Batuen Erakunde-ko pasaporte eskaintza zigutela Kubara joateko», gogorarazi du Arrugaetak. «Baina orduan ere gauzak gaizki egin zituen Espainiak. Kubarekin 50 lagun hartzeko tratua egin zuen, baina egia osoa esan gabe. Kubak hasieran onartu egin zuen, konturatu zen arte gu ez ginela errefluxiatu arruntak, ez ginela gure borondatez joan, behartuta baizik. Gu onartu gintuen, jada gurekin hitz eginda zegoelako, baina ateak itxi zituen gero. Beste leku batzuk bilatu zituzten, ordea».

Deportatuen itzulera

Togo, Gabon, Sao Tome, Cabo Verde, Panama, Dominikar Errepublika, Kuba, Venezuela eta Aljeria izan dira deportatuaren *espetze* hainbat urtez, eta deportatu batzuek oraindik jarraitzen dute deserrian. Hainbatek hautsi zuten deportazioa bere garaian, beste hainbat etxetik milaka kilometrorra hil dira 25 urteotan—gaixorik, istripuz...—, eta zenbaitek oraindik deportazioan jarraitzen dute. «Ikuspegi juridikotik, seguruenik gutako gehienek ez genuke arazorik izango Euskal Herrira itzultzeko, baina hori ez da kontua. Deportatuaren artean beti egon da adostasun bat, eta da gu arazo politiko baten ondorioz deportatu gintuztela, eta agian jendeak ez du ulertuko, baina gure itzulerak konponbide kolektiboa izan behar du, gu deserrira ekarri gintuen gatazka politikoak gaitzuta behar du. Niretzat ametsa da etxera itzultzea, baina ez edozein moduan. Bitartean, gure garaipena gure herriarekiko loturari eustea da, gu suntsitzeko eta gure nortasuna ezabatzeko egin zuten ahaleginari amore ez ematea».



Itxutxo Abrisketa deportatua, Kuban. BERRIA



Alfonso Etxegarai, Sao Tomen futbol taldeko kide zituena lagunekin. IPES



Baionako katedrala, Poliziak hustu ostean. DANIEL VELEZ

